

Euskararen II. Plan Estrategikoaren hasierako zirriborroa jendaurreko erakustaldian egon da Gobernu Irekiaren Atarian, 2021eko urriaren 11tik, 2021eko azaroaren 11ra. Hilabete honetan, guztira, 58 ekarpen jaso dira: 56 ekarpen Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, ekarpen bat posta elektronikoz eta beste ekarpen bat erregistrotik.

Egoki jo diren ekarpenak Euskararen II. Plan Estrategikoaren behin betiko idazketan gehitu dira. 8 ekarpen onartu dira, osoki edo zati batean, eta 50 baztertu.

Jarraian ekarpenak eta erantzunak ikus daitezke:

1 Ekarpena: Aumento recursos a las Clases de Euskera para Adultos del CEBA en Corella

Esparrua:

Hiztun berriak

Onespena:

Dokumentu honetan proposatutako alegazioak onartu eta Euskararen II. Plan Estrategikoan sartu dira.

Horretarako 2.3 helburu espezifikoak eta 2.3.9 proiektua aldatu dira::

2.3 helburu espezifikoak: *Haur gehiagok euskaraz eskolatzea eta ikasketak euskaraz egiteko aukera herritar orori bermatzea, haur eskoletatik hasi eta irakaskuntza goi mailetaraino, baita Helduen Oinarrizko Hezkuntzan ere.*

2.3.9 proiektua: *Euskara Helduen Hezkuntza arautuko eskaintzan sartu, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoek (HOHIP) gizartearen eskariari erantzuteko nahikoa baliabide dutela ziurtatuz.*

2 Ekarpena: SEÑALÉTICA CARRETERAS, AUTOPISTA, PUEBLOS.. DEBE SER BILINGÜE EN LA RIBERA

Esparrua:

Zerbitzu publikoak.

Onespena:

Dokumentu honetan proposatutako alegazioak onartu eta Euskararen II. Plan Estrategikoan sartu dira.

Horretarako proiektu berri bat gehitu da 3.ardatzean, zehazki, 3.4 helburu espezifikoan: *Nafarroako toponimia babestea eta sustatzea, hau da, biltzea, egoki kudeatzea, denen eskuragarri jartzea eta erabilera egokia bultzatzea; betiere, Administrazioan toponimia erabiltzen dutenekin eta kudeatzen dutenekin koordinatuta.*

3.4.6 proiektua: *Toponimia ofiziala erabiltzen ez duen bide seinaleztapena berri berritu dadin bultzatu, erabiliko dela bermatzeko.*

3 Ekarpena: Extensión modelo A obligatorio a toda Navarra

Esparrua:

Hiztun berriak.

Onespena:

Dokumentu honetan proposatutako alegazioak ez dira onartu, baina aldaketa bat egon da 2.3.2 proiektuaren idazketan eta kokapenean, 4. ardatzera mugitu baita: *Euskararen eta haren sustatzearen aldeko adostasun soziala sendotzea eta hizkuntzak gizartean duen balioespena hobetzea.*

Beraz, honako proiektua proposatzen da: 4.1.4 *Eskola adineko haur nafar guztiek, euskararen gutxieneko ezagutza izan dezaten aukera aztertu eta azterketa horretan gizarte eragileekin aritu.*

4 Ekarpena: Talento hispano

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen hori ez da onartu, ez delako proposamen edo alegazio zehatzik egiten.

5 Ekarpena: Euskera y comercio

Esparrua:

Euskara, ekonomia eragile

Onespena:

Dokumentu honetan proposatutako ekarpena ez da onartu.

Euskararen II. Plan Estrategikoak paisaia linguistikoan euskararen erabilera sustatzea proposatze du, hala nola, errotulazioan.

5. ardatza: *Euskara, ekonomia eragile.*

5.2 Helburu espezifikoa: *Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzu profesionaletan euskararen presentzia eta erabilera areagotzea.*

5.2.1 proiektua: *Kaleko merkataritzako eta zerbitzugintzako hizkuntza paisaian (errotulazioan, webgunean, irudi korporatiboan, etiketatzean...) eta komunikazioetan euskararen erabilera sustatu.*

Euskararen 15/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, funtsezko helburu du Nafarroan euskararen berreskurapena eta garapena babestea, erabilera bultzatzeko neurriak adieraziz. Beraz, Planak legean datorrena biltzen du.

Gainera, Euskararen II. Plan Estrategikoak honakoa proposatzen du 5.3 helburu espezifikoa: *Langileen euskarazko gaikuntza hobetzea eta euskaraz lan egiteko baliabideak haien eskura paratzea.*

Ez du elebiko lanpostuak diruz laguntzea jasotzen, alegazioan aipatzen den moduan.

6 Ekarpena: Discriminación laboral

Esparrua:

Zerbitzu publikoak.

Onespena:

Dokumentu honetan proposatutako ekarpena ez da onartu.

Euskararen II. Plan Estrategikoak honakoa proposatzen du 5.3 helburu espezifikoan: *Langileen euskarazko gaikuntza hobetzea eta euskaraz lan egiteko baliabideak haien eskura paratzea.*

Ez du elebiko lanpostuak diruz laguntzea jasotzen, alegazioan aipatzen den moduan.

7 Ekarpena: Personal interino / Función Pública

Esparrua:

Zerbitzu publikoak.

Onespena:

Ekarpen honetako proposamenak ez dira onartu, Euskararen Foru Legeak ezarritako neurriei egiten dietelako erreferentzia, eta ez zuzenean planean proposaturikoei.

Beharrezkoa da Nafarroako Administrazio Publikoek zerbitzua euskaraz ematea herritar ororen hizkuntza eskubideak errespetatzeko helburuarekin. Horretarako, honakoa biltzen du Euskararen II. Plan Estrategikoak 3. ardatzean: *Nafarroako administrazio publikoek zerbitzua euskaraz ematea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz.*

Helburu hau abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean, euskarari buruzkoan eta 103/2017 Foru Dekretuan, azaroaren 15ekoan, euskararen erabileraarautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, berenerakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikokoentitateetan, onarritzen da.

103/2017 FORU DEKRETUA:

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 2.1. artikuluan ezartzen dagatzelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla eta, horren ondorioz, herritar guztiekdutela jakin eta erabiltzeko eskubidea.

8 Ekarpena: Aclaraciones sobre Carta de Lenguas Regionales/Minoritarias

Esparrua:

Lege-arauzko oinarriak.

Onespena:

Ekarpen honetan proposamen edo alegazio zehatzik identifikatzen ez denez, ezin da onartu. Nolanahi ere, Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna 1992ko ekainaren 25ean Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak onartutako nazioarteko tratatu bat da, konbentzio-mailakoa, eta urte bereko azaroaren 5ean sinatu zuten hamaika estatu kidek, horien artean Espainiakoak, 2001eko apirilaren 9an berretsi baitzuten. Gutuna urte bereko abuztuaren 1ean sartu zen indarrean. Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatu gisa, edozein lege organiko edo arrunten mailatik gorakoa, Gutunaren edukiak ordenamendu juridiko osoari buruz informatu behar du.

Gutunean eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza guztiak aipatzen dira, hau da, Estatuko hizkuntza ofizialez edo ofizialez bestelako hizkuntza guztiak, estatu bateko lurralde batean estatu horretako herritarrek hitz egin izan dituztenak eta Estatuko gainerako herritarrak baino talde txikiagoa osatzen dutenak.

Honako hau esaten da 2001eko irailaren 15eko 222. BOE-n argitaratutako berrespen-dokumentuan:

<< Espainiak adierazten du, artikuluko horietan aurreikusitako ondorioetarako, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzat hartzen direla Euskal Autonomia Erkidegoko, Kataluniako, Balear Uharteetako, Galiziako, Valentziako eta Nafarroako Autonomia Estatuetan ofizialtzat aitortutako hizkuntzak. Era berean, Espainiak adierazten du, ondorio berberetarako, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzat hartzen direla Autonomia Estatuetuek tradizioz hitz egiten diren lurraldeetan babesten eta aintzat hartzen dituztenak.>>

9 Ekarpena: EUSKERA, OPOSITORES Y FUNCIONARIOS

Esparrua:

Zerbitzu publikoak.

Onespena:

Ekarpen honetako proposamenak ez dira onartu, Euskararen Foru Legeak ezarritako neurriei egiten dietelako erreferentzia, eta ez zuzenean planean proposaturikoei.

Beharrezkoa da Nafarroako Administrazio Publikoek zerbitzua euskaraz ematea herritar ooren hizkuntza eskubideak errespetatzeko helburuarekin. Horretarako, honakoa biltzen du Euskararen II. Plan Estrategikoak 3. ardatzean: Nafarroako administrazio publikoek zerbitzua euskaraz ematea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz.

Helburu hau abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean, euskarari buruzkoan eta 103/2017 Foru Dekretuan, azaroaren 15ekoan, euskararen erabileraarautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, berenerakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikokoentitateetan, onarritzen da.

103/2017 FORU DEKRETUA:

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 2.1. artikuluan ezartzen dagaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla eta, horren ondorioz, herritar guztiek dutela jakin eta erabiltzeko eskubidea.

10 Ekarpena: Sobre extensión enseñanza euskera

Esparrua:

Hiztun berriak.

Onespena:

Dokumentu honetan proposatutako alegazioak ez dira onartu, baina aldaketa bat egon da 2.3.2 proiektuaren idazketan eta kokapenean, 4. ardatzera mugitu baita: Euskararen eta haren sustatzearen aldeko adostasun soziala sendotzea eta hizkuntzak gizartean duen balioespena hobetzea.

Beraz, honako proiektua proposatzen da: 4.1.4 Eskola adineko haur nafar guztiek, euskararen gutxieneko ezagutza izan dezaten aukera aztertu eta azterketa horretan gizarte eragileekin aritu.

11 Ekarpena: FamiliaE pide que se respete la libertad de elección para las familias

Esparrua:

Hiztun berriak.

Onespena:

Dokumentu honetan proposatutako alegazioak ez dira onartu, baina aldaketa bat egon da 2.3.2 proiektuaren idazketan eta kokapenean, 4. ardatzera mugitu baita: Euskararen eta haren sustatzearen aldeko adostasun soziala sendotzea eta hizkuntzak gizartean duen balioespena hobetzea.

Beraz, honako proiektua proposatzen da: 4.1.4 Eskola adineko haur nafar guztiek, euskararen gutxieneko ezagutza izan dezaten aukera aztertu eta azterketa horretan gizarte eragileekin aritu.

12 Ekarpena: Imposiciones no

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen hau ez da onartu, ez delako proposamen edo alegazio zehatzik egiten.

13 Ekarpena: el euskera no puede servir para discriminar

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen hau ez da onartu, ez delako proposamen edo alegazio zehatzik egiten.

14 Ekarpena: COMENTARIOS AL BORRADOR DE II PLAN ESTRATÉGICO DEL EUSKERA25

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen honetan ez da alegazio edo proposamen zehatzik identifikatzen. Nolanahi ere, aipatutako alderdi batzuei erantzunez, honako hau jakinarazten da:

Arazo metodologikoak:

Atal honetan ez zaio ekarpenik egiten planari, besterik gabe, alderdi batzuk zalantzan jartzen dira.

Parte hartze prozesuari dagokionez, honakoa biltzen da Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroaren 1.6.2 puntuan: *Adituak arlo eta jarduera ezberdinetakoak bai eta euskararekiko ikuspegi ideologiko anitzetakoak dira. Izan ere, aditu taldea osatzerakoan alderdi hauek hartu ziren aintzat: euskararen egoera ezagutzea eta horren gaineko iritzi jantzia eta hausnarketa egina izatea; eta Nafarroako pentsamendu aniztasuna ongi ordezkatzeta.*

Planak alderdi metodologikoan zehazten duen bezala, ez da informazio guztia ematen (bilkuretako aktak, eragile bakoitzaren ekarpenak...), baina datu hauek Planaren espedientean daude.

Laginari dagokionez, *Nafarroako Datu soziolinguistikoak. 2018* dokumentuak ondorengoa zehazten du "Ohar metodologikoak" atalean:

Txosten honetan azaltzen diren datu soziolinguistikoak 2018an bildu dira, NASTAT - Nafarroako Estatistika Erakundeak egin duen Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta eragiketa estatistikoan.

Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta / Encuesta Social y de Condiciones de Vida (GBBI) NASTATEk urtero egiten duen eragiketa estatistikoa da. Nafarroan dauden informazio beharrei egoki erantzuteko, edizio bakoitzean GBBIk gai zehatz bat jorratzen du. 2018ko edizioan, GBBIk Nafarroako gizartearen hizkuntzen ezagutza eta erabilera landu du berariaz, beste xedeen artean, *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)* plangintzaren ebaluazio-adierazle sistema datuez hornitzeko.

GBBI-2018 eragiketa estatistikoak hartu duen geografia eta populazio esparrua Nafarroako familia etxebizitzetan bizi den 15 urteko eta urte gehiagoko biztanleria da. Datu-bilketa telefono eta Internet (CATI eta CAWI) bidezkoa izan da. Laginaren ezaugarriei dagokienez, ausazko laginketa bakuna izan da, lurralde estratifikazioa eta konpromisoaren esleipena dituen. Lagina 5.792 inkestak osatu dute. Datu-bilketa 2018ko urrian eta azaroan egin zen.

2018ko GBBIko datu soziolinguistikoak 1991tik bost urtero (1991, 1996, 2001, 2006, 2011 eta 2016 urteetan) egin diren inkesta soziolinguistikoetako datuekin alderagarriak izan daitezten,

txosten honetan aztertutako unibertsoa Nafarroako 16 urteko eta urte gehiagoko biztanleria izan da.

Ikuspuntuari dagokionez, Euskararen II. Plan Estrategikoa jendaurreko erakustaldian egon da hilabete batez Gobernu Irekiaren Atarian. Tarte honetan Plana ezagutarazi da eta herritar guztiek bere osaeran parte hartzeko aukera izan dute, baita eragile sozial, sindikatu, profesionalen erakunde eta enpresaburuek ere. Mahai teknikoetan, bi bilkura telematikoez gain, eragileek galdetegi bidez ekarpenak egiteko aukera izan zuten, 1.3.6 puntuak zehazten den moduan. Beraz, Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroa egiteko kontuan hartu dira galdetegietan jasotako ekarpenak eta saio telematikoetan jasotakoak.

Datu soziolinguistikoei dagokienez, ez dugu ezagutzen Soziolinguistika Klusterrak 2018an egindako ikerketarik.

Dokumentuan proposaturiko aurkezpen eta errepresentazio arazoei dagokienez, zehaztu behar da Planaren diagnostikoan erabilitako terminoak kontzeptu soziolinguistiko adostuak direla eta eremu horretako lanetan erabili ohi direnak.

- Hipotesi arazoak:

Planak lege arauzko oinarrian ditu Euskararen 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa; eta Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Espainiako Erresumak 1992an sinatua eta 2001ean berretsia, bai eta horren jarraipen prozesuan (2005ean, 2008an, 2012an, 2016an eta 2019an) Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak emandako aholkuak eta Adituen Batzordeak egindako txostenak ere.

Euskararen 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoa, honakoa dio:

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

1. Foru lege honen xedea euskararen erabilera arrunta eta ofiziala arautzea da, gizarte bizikidetzaren eta irakaskuntzaren esparruetan.

2. Hauek dira lege honen ezinbesteko helburuak:

a) Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea.

b) Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz.

c) Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.

3. Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanen dute

2. artikulua

1. Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

2. Gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala. Euskara ere ofiziala da Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 9. artikuluan eta foru lege honetan aurrez ikusitako eran.

AMIA analisiari dagokionez, Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroaren 1.6.2 puntuan (Diagnosia osatzea) azterketa egiteko erabili diren iturriei buruzko informazioa biltzen da:

Ikerketa soziolinguistikoetako datuak eta adituekiko elkarrizketetako ikusmolde nahiz iritzia baliaturik, Nafarroako euskararen egoeraren hasierako diagnosia eta horren aztertzeko tresna, AMIA (Arriskuak, Mehatxuak, Indarguneak eta Aukerak), osatu ziren.

- Lehen tasun arazoak:

Honakoa dio abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, euskarari buruzkoak:

3. artikulua

1. Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntza dela-eta herritarrak diskriminaturik izan ez daitezzen.
2. Botere publikoek hizkuntza araua errespetatuko dute, foru lege honetan eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritakoaren ondorio diren jardura guztietan.

15 Ekarpena: Alegaciones FESP-UGT al II Plan Estratégico del Euskera

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen honetan ez da alegazio edo proposamen zehatzik identifikatzen. Nolanahi ere, aipatutako alderdi batzuei erantzunez, honako hau jakinarazten da:

Lanpostu elebidunek zerbitzua euskaraz eskainiko dela bermatzen dute. Herritarrek Nafarroako zein hizkuntzatan artatuak izatea nahi duten aukeratzeko eskubidea dute, baina lanpostu horiek elebidun gisa identifikatzen ez badira, ez da eskubide hori bermatzen.

Herritar ooren hizkuntza eskubideak bermatzeko beharrezkoa da Nafarroako Administrazio Publikoek beren zerbitzua euskaraz ere ematea.

103/2017 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan:

103/2017 FORU DEKRETUA:

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 2.1. artikuluan ezartzen da gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla eta, horren ondorioz, herritar guztiek dutela jakin eta erabiltzeko eskubidea. 2.2 artikuluan gaztelaniaren ofizialtasuna ezartzen du Nafarroa osoan; euskararena, aldiz, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 9. artikuluan ezarritakoa izanen da.

Euskarari buruzko Foru Lege horrek hiru hizkuntza eremu ezartzen ditu Nafarroan eta foru dekretu honek eremu horiek hartzen ditu bere baitan. Eremu euskalduna, zeinetan euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak baitira eta herritarrek eskubidea baitute administrazio publikoekiko harremanetan bi hizkuntzak erabiltzeko eta haiek aukeratutako hizkuntzan hartuak

izateko. Eremu mistoa, zeinetan herritarrek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea baitute Nafarroako administrazio publikoen aurrean aritzerakoan. Eta eremu ez-euskalduna, zeinetan herritarrei onartzen baitzaie Nafarroako administrazio publikoen aurrean euskara erabiltzeko eskubidea. Hori horrela, Euskarari buruzko Foru Legeak onartzen du herritarrek eskubidea dutela hiru eremu horietan Nafarroako berezko hizkuntzak administrazio publikoekiko harremanetan erabiltzeko, foru lege horretan berean ezarritako terminoetan. Halaber, administrazio publiko horiek premiatzen ditu eremu bakoitzean neurri desberdinak hartzera, eskubide hori modu eta maila desberdinetan gauzatzeko. Hala ere, kontuan izan behar da, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea parte batean aldatu zuen otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legearen hitzaurrean onartzen dela ez dagoela inolako arrazoirik herritarren hizkuntza eskubide batzuk desberdinak izateko eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean, kontuan izan behar baita hizkuntza-ofizialtasunaren araubidea berbera dela aipatutako bi eremu horietan.

Administrazioaren paisaia linguistikoa, irudi korporatiboa eta inprimaki edo dokumentu elebidunei dagokienez, azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak, euskararen erabilera arautzen duenak Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, ondorengo dio irudiari, jakinarazpenei eta argitalpenei buruz:

II. TITULUA: Euskararen erabilera Nafarroako administrazio publikoetan eta horiek herritarrekin dituzten harremanetan

I. KAPITULUA: Hizkuntza eremuak

1. ATALA: Eremu euskalduna

10. artikulua. Irudia, oharrak eta argitalpenak.

1. Eremu euskaldunean dauden administrazio publikoetan, erakunde publikoetan eta zuzenbide publikoko entitateetan, ele biz idatziko dira bulego eta egoitzetako erroteruak, materialen, uniformeen eta ibilgailuen erroteruak, inprimaki eta agiritako izenburuak edo idazpuruak, zigilu ofizialak eta identifikaziorako eta seinaleztapenerako edozein elementu.

2. Xedapenak, oharrak, informazio-liburuxkak, kanpainetako material grafikoa, argitalpen dibulгатiboak, iragarkiak eta mota orotako publizitatea edota hiriko bide-seinaleen informazio-elementuak ele biz idatziko dira; nahi izanez gero, euskarri bereziak erabil daitezke.

2. ATALA: Eremu mistoa

14. artikulua. Irudia, oharrak eta argitalpenak.

1. Eremu mistoan izan eta zerbitzu zentralizat hartzen ez diren administrazio publikoek, erakunde publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek neurriak bultzatuz bulego eta egoitzetako erroteruak, materialen, uniformeen eta ibilgailuen erroteruak, inprimaki eta agirien izenburuak edo idazpuruak, zigilu ofizialak eta identifikaziorako eta seinaleztapenerako edozein elementu ele biz idatziko direla bermatzeko.

2. Era berean, aurreko apartatuan aipatutako zerbitzuek behar diren neurriak har ditzakete bermatzeko ele biz idatziko direla xedapenak, oharrak, informazio-liburuxkak, kanpainetako

material grafikoa, argitalpen dibulгатiboak, iragarkiak eta mota orotako publizitatea edo antzeko beste idazkiak, bai eta hiriko bide-seinaleen informazio-elementuak ere.

3. ATALA: Eremu ez-euskalduna

18. artikulua. Irudia, oharrak eta argitalpenak.

1. Eremu ez-euskaldunean dauden administrazio publikoetan, erakunde publikoetan eta zuzenbide publikoko entitateetan, ele biz idatz daitezke bulego eta egoitzetako errotuluak, materialen, uniformeen eta ibilgailuen errotuluak, inprimaki eta agirietako izenburuak edo idazpuruak, zigilu ofizialak eta identifikaziorako eta seinaleztapenerako edozein elementu. Aldiz, hizkuntza bakarra erabiliz gero, gaztelaniaz egin beharko dira.

2. Mota orotako xedapenak, oharrak, informazio-liburuxkak, kanpainetako material grafikoa, argitalpen dibulгатiboak, iragarkiak eta publizitatea eta hiriko bide-seinaleen informazio-elementuak ele biz idatz daitezke. Aldiz, hizkuntza bakarra erabiliz gero, gaztelaniaz egin beharko dira.

16 Ekarpena: Totalitarismo lingüístico ahora, ¿qué impondrán después?

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen hau ez da onartu, ez delako proposamen edo alegazio zehatzik egiten.

17 Ekarpena: Alegaciones y Cuestiones de Sociedad Civil Navarra

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen honetan ez da alegazio edo proposamen zehatzik identifikatzen. Nolanahi ere, aipatutako alderdi batzuei erantzunez, honako hau jakinarazten da:

Ekarpenaren azken puntuari erreferentzia eginez,

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna 1992ko ekainaren 25ean Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak onartutako nazioarteko tratatu bat da, konbentzio-mailakoa, eta urte bereko azaroaren 5ean sinatu zuten hamaika estatu kidek, horien artean Espainiakoak, 2001eko apirilaren 9an berretsi baitzuten. Gutuna urte bereko abuztuaren 1ean sartu zen indarrean. Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatu gisa, edozein lege organiko edo arrunten mailatik gorakoa, Gutunaren edukiak ordenamendu juridiko osoari buruz informatu behar du.

Gutunean eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza guztiak aipatzen dira, hau da, Estatuko hizkuntza ofizialez edo ofizialez bestelako hizkuntza guztiak, estatu bateko lurralde batean

estatu horretako herritarrek hitz egin izan dituztenak eta Estatuko gainerako herritarrak baino talde txikiagoa osatzen dutenak.

Honako hau esaten da 2001eko irailaren 15eko 222. BOE-n argitaratutako berrespendezko dokumentuan:

<< Espainiak adierazten du, artikuluko horietan aurreikusitako ondorioetarako, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzat hartzen direla Euskal Autonomia Erkidegoko, Kataluniako, Balear Uharteetako, Galiziako, Valentziako eta Nafarroako Autonomia Estatuetan ofizialtzat aitortutako hizkuntzak. Era berean, Espainiak adierazten du, ondorio berberetarako, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzat hartzen direla Autonomia Estatuetan tradizioz hitz egiten diren lurraldeetan babesten eta aintzat hartzen dituztenak.>>

18 Ekarpena: IMPOSICIÓN

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Dokumentu honetan proposatutako alegazioak ez dira onartu, baina aldaketa bat egon da 2.3.2 proiektuaren idazketan eta kokapenean, 4. ardatzera mugitu baita: *Euskararen eta haren sustatzearen aldeko adostasun soziala sendotzea eta hizkuntzak gizartean duen balioespena hobetzea.*

Beraz, honako proiektua proposatzen da: 4.1.4 *Eskola adineko haur nafar guztiek, euskararen gutxieneko ezagutza izan dezaten aukera aztertu eta azterketa horretan gizarte eragileekin aritu.*

19 Ekarpena: Bortziritako Euskara Mankomunitateko teknikarien ekarpenak Euskarabidearen II. Plan Estrategikoari

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Bortziritako Euskara Mankomunitateko teknikariek Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroari egindako ekarpenen erantzuna:

Orokorrean, ekarpen gehienak osoki edo partzialki onartu eta Planean txertatu dira. Hurrengo lerroetan ekarpenak ez onartzearen zergatia azalduko da:

- Ohar orokorra: iruzkinean aipatzen da proiektu askotan erabiltzen diren aditzak ez direla zehatzak. Nahita egindako erredakzioa da eta urteko ekintza-planean eginen da proiektu bakoitzaren erredakzio zehatza.
- 1.2.1 proiektua: nahita egindako erredakzioa da eta ekintza-planean eginen da proiektu bakoitzaren erredakzio zehatza.

- 1.6.3 proiektua: nahita egindako erredakzioa da eta ekintza-planean eginen da proiektu bakoitzaren erredakzio zehatza.
- 1.6.5 proiektua: ez dira gauza bera, 1.2.2 proiektuan laguntza emateaz ari da eta 1.6.5 proiektuan elkarlanean sortzeaz.
- 1.7.3 proiektua: ekarpena aintzat hartu da eta diruz laguntzeko formula berriak aztertuko dira. Ekintza-planean emanen dira zehaztasunak.
- 2.1.1 proiektua: ekintza-planean eginen da proiektu bakoitzaren erredakzio zehatza.
- 2.2.1 proiektua: erredakzio horrekin adierazi nahi da ugaltzea dela helburua eta urteko ekintza-planean zehaztuko da zer eginen den ugaltzeko.
- 2.2.2 proiektua: Euskarabideak foroak egitea sustatuko du eta urteko ekintza-planean zehaztuko da zer eginen den, formulazio zehatza erabiliz.
- 2.3.1 proiektua: bai, gizarte eragileekin lankidetzak aurreikusten da.
- 2.3.8 proiektua: Euskararen Plan Estrategikoak ezin du horrelako neurririk proposatu, Unibertsitatea erakunde autonomoa baita. Lankidetzak markoaren baitan gaia lan daiteke.
- 2.4.1 proiektua: proiektu honen eragin-esparrua eskolaz kanpoko aisialdia da, ez da kirolera soilik mugatzen. 1.4.2 proiektua berriz, zehazki kirolera bideratua dago.
- 2.4.2 proiektua: ekintza-planean zehaztuko dira lankidetzak.
- 2.6.1 proiektua: ez da zehaztu zein arloekin eginen den lankidetzak tokian toki aldatu egin daitekelako.
- 2.6.2 proiektua: tokian toki erabakiko da zein eragilerekin eginen den elkarlana eta urteko ekintza-planean zehaztuko da.
- 2.6.3 proiektua: ekarpena aintzat hartuko dugu eta proiektu honi dagokion ekintza-planean zehaztuko da nola garatuko den.
- 3.1.1 proiektua: departamentuen egoera desberdina da: planak abiatuta dituzten departamentuen kasuan, lantzen jarraituko da eta abiatuta ez dituzten departamentuen kasuan, landu = planak onartu, inplementatu...
- 3.1.9 proiektua: ez da formulazio zehatzagorik paratu teknikoki zailtasunak daudela ikusten delako.
- 3.2.4 proiektua: aintzat hartu da 3.6 helburu espezifikoan.
- 3.6.1 proiektua: proiektu honek "Euskara erabiltzeko eta sustatzeko laguntzak toki entitateentzako" deialdiari egiten dio erreferentzia.
- 3.6.3 proiektua: 3.6.1 proiektua laguntza ekonomikoaz ari da eta 3.6.3 proiektua aholkularitza eta laguntza teknikoaz.
- 3.6.4 proiektua: aholkularitza eta laguntza teknikoaz ari da.
- 4.2.3 proiektua: diruz laguntzeaz ari da.

- 4.2.6 proiektua: erredakzio horrekin adierazi nahi da proiektu honen helburua gizartearen hainbat esparrutan egiten diren jarduera arrakastatsuetan euskara sar dadin bultzatzea dela eta urteko ekintza-planean zehaztuko da nola egingen den.
- 4.3.2 proiektua: urteko ekintza-planean zehaztuko da.
- 4.3.6 proiektua: oro har ez da laguntza ekonomikoari buruz ari, sustapen lan berezia egiteaz ari da (berariazko mikrolanketak, esaterako).
- 5.2.1 proiektua: ezin da itxi gabe dagoen proiektu baten erreferentzia egin Planean. Bestalde, sustapenean sartzen da arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko dirulaguntza deialdia eta lotzen zaizkio euskara zerbitzuek egiten dituzten merkataritza kanpainak. Ez da baztertzen ekimen zehatzago bat egitea. Urteko ekintza-planean zehaztuko da zertan datzan sustapenak.
- 5.2.4 proiektua: iruzkin hau Programa Akordioan datorren bezala jaso da, hitzez hitz.
- 5.5.1 proiektua: Euskarabideak begi onez ikusten du sare hau eta babesa adieraziko lioke behar denean.
- 5.6.1 proiektua: ezin da itxi gabe dagoen proiektu baten erreferentzia egin Planean.
- 6.1.4 proiektua: proiektu hau azterketa egitetik haratago doa, lantzeko proposamenak egin eta neurri zuzentzaileak hartzea planteatzen baitu.

20 Ekarpena: Nafarroako IKAREN ekarpenak

Esparrua:

Hiztun berriak.

Onespena:

II. plan estrategikoari ekarpen zehatzak:

1. 2.5- Proposamen honetan helburua eta tresna nahasten dira eta ideia hau Planeko 2.5.4 proiektuan jasotzen da.

2.5.1- Proposamen honek indarrean dagoen lege araudia aldatzea eskatzen du. 2.5.3 proiektuan proposatzen den elkarlanerako gunean lantzeko gaia da.

2.5.2- 2.5.4 proiektuan biltzen dira proposamen honetako ideiak.

2.5.3- Ez da honelako berariazko kanpainarik egitea aurreikusten, helduen euskalduntzera bideraturiko kanpainetan biltzen baita alfabetatzearen ideia.

2.5.4- Ideia hau 2.5.4 proiektuan jaso da.

2.5.5- Ideia hau 6.ardatzean jaso da: 6.1.5 proiektua: *Euskarazko hizkuntza-gaitasunaren maila ebaluatzeko eta egiaztatzeko probak eta sistemak diseinatzea, euskara mintzatzen den beste lurraldeetako erakunde publikoekin batera, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan oinarrituta, eta bi aldeek emandako ziurtagiriak elkarri aitortzeko helburuarekin.*

2.5.6- Proiektu hau kendu da, planak ez dituelako aintzat hartuko 2021etik aurrera pandemiak sortutako kalteentzako emanen diren laguntzak.

1.4.1- Ez da onartzen ez da alegazio edo proposamen zehatzik identifikatzen.

2.3.5- Ideia hau 2.5.1 proiektuan biltzen da.

2.3.10- Ekarpén hau ez da onartu proiektu honen egokitasuna ikusten delako.

2.3.12- Ideia hau neurri batean 2.3.11 proiektuan biltzen da. Ez da onartzen formulazioa desegokia delako.

21 Ekarpéna: Euskararen Gizarte Erakundeén Kontseiluak eta Hizkuntz Eskubideén Behatokiak Euskararen

Bigarren Plan Estrategikoari egindako ekarpénak

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Orokorrean, ekarpén gehienak osoki edo partzialki onartu eta Planean txertatu dira. Ondorengo lerroetan ekarpénak ez onartzearen zergatia azalduko da:

- 2.13 ekarpéna: ez da onartzen, alde batetik, formulazioa nahasia delako (ez da zehazten zein unibertsitatean; graduondokoak eta masterrak gauza bera dira; online titulaziorik ez dago, online ikasteko modua baita; ikasleek aukeratzen dute zein hizkuntzetan egin tesiak), eta bestetik, unibertsitateak erakunde autonomoak direnez, Euskarabideak ez du planifikazio hori abian jartzeko eskumenik.
- 2.15 ekarpéna: ez da onartzen Nafarroako Unibertsitate Publikoa erakunde autonomoa delako.
- 2.18 ekarpéna: ez da onartu ekarpéna ulertzen ez delako.
- 3.2 ekarpéna: ez da onartzen. Departamentuetako lehenasunezko unitateak identifikatzen dira, baina ezin dira lehenasunezko departamentuen hierarkiak ezarri.
- 3.9 ekarpéna: ideia hau 3.1.1 proiektuan jasota dago. Urteko ekintza-planean formulazio zehatzagoa egingen da.
- 3.10 ekarpéna: ideia hau 3.1.2 proiektuan jasota dago.
- 3.11 ekarpéna: ideia hau 3.5.1 proiektuan jasota dago.
- 3.12 ekarpéna: ez da onartzen dagoeneko egiten delako.
- 3.13 ekarpéna: ideia hau 3.2.6 proiektuan jasota dago.
- 3.15 ekarpéna: ideia hau 3.5 helburu espezifikoan biltzen da.

- 4. ardatzari dagokion ekarpena onartzen da, baina ez da formulazioa aldatzeko elementurik ikusi.
- 5.1 ekarpena: aintzat hartu da 5.1.5 proiektuan proposatzen den foroaren helburu eta eginkizunetan txertatzeko.
- 5.4 ekarpena: ez da onartu gauzatu ahal izateko berme juridikorik ez dagoelako.
- 5.6 ekarpena: modu orokorrago batean integratuta dago 5.7.2 proiektuan.
- 5.7 ekarpena: ez da onartu honetarako marko juridiko egokirik ez dagoelako.
- 5.8 ekarpena: ez da onartu proposamena ulertzen ez delako.
- 5.9 ekarpena: ideia hau 5.1.1 proiektuan biltzen da.
- 6.1 ekarpena: ideia hau 6.1.1 proiektuan jaso da.
- 6.2 ekarpena: ez da onartu hau gauzatu ahal izateko berme juridikorik ez dagoelako. Hedabideei dagokiena 6.1.7 proiektuan jasota dago.

22 Ekarpeta: Conflicto de intereses

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Dokumentu honetan proposatu diren ekarpenak ez dira onartu.

Gobernu Irekiaren Atarian parte hartzeko arauak adierazten dira:

Parte hartzeko arauak

Eztabaida orok, baita webguneetan eginak ere, arau batzuk behar ditu, gutxieneko batzuk, eztabaidak gizalegez eta zentzuz egin daitezten. Horretarako, oinarritzko arau batzuk ezarri dira. Gobernu Irekiko moderazio taldea arau horietan oinarrituko da erabakitzeko herritarrek igorritako ekarpen, iruzkin edo eduki bat webgunean argitaratuko den ala ez. Hauek dira aipaturiko arauak:

1. Ez da onartuko eduki sexista, arrazista edo xenofoboa duen mezurik edo zeinahi motatako diskriminazioa eragiten duenik.
2. Ez da onartuko indarkeriara bultzatzen duen edo legez kanpoko jarduerak sustatzen dituen edukirik.
3. Halaber, ez da onartuko difamaziozko mezurik, mezu iraingarririk, beste pertsona batzuen bizitza pribatuari eragiten dioten mezurik, mehatxurik, edo indarrean den legeria urratzen duen mezurik. Horren barnean sartzen dira egile eskubideek babesturiko edukiak dituzten mezuak, ez bada mezua igortzen duen pertsona eskubide horien jabe dela edo eduki horiez baliatzeko baimena duela.

4. Era berean, ez da onartuko pertsonen, enpresen edo bestelako entitateen kontrako falta edo delitu salaketa zuzenak dituen mezurik.

5. Ez da onartuko elkarrizketa etetera bideraturiko mezurik. Karaktere errepikapenak edo webguneetara estekak baino ez dituzten mezu errepikatuak nekagarritzat joko dira. Robot informatikoetatik asotsa sortzeko xedez igortzen diren edukiak spama direla ulertuko da eta ezabatu egingen dira.

6. Egiatzen bada pertsona batek beste baten nortasuna ordezkatu duela, hori aski arrazoi izanen da pertsona horrek igorritako edukia ez argitaratzeko.

7. Eduki hauek erabilera partikularrekoak dira. Ez da onartuko enpresek beren produktu edo zerbitzuak sustatzeko eduki hauek erabiltzerik, ezta iragarkiak argitaratzeko utz daitezkeen ataletan ere. Era berean, ez da onartuko mezu kateak, marketin piramidala edo antzekoak igortzea.

Moderazioa

Errespetuan oinarrituriko moderazio lan bat egingen da. Ekarpinak eta iruzkinak Gobernu Irekiko atarian ikusiko dira, beti ere parte-hartze arauak betetzen badira.

Identifikazioa

Ekarpenetan hainbat identifikazio maila onartuko dira; ez da beharrezkoa nortasuna izenarekin edo posta elektronikoarekin azaltzea.

Gobernu Irekiaren Zerbitzuak jakinarazten dizu Gobernu Irekiko atarian formulario bidez emandako izaera pertsonaleko datuak soilik eta bakarrik erabiliko direla Gobernu Irekiko atarian aurrez ikusitako xedeetarako. Nolanahi ere, parte-hartzaileak jakin behar du espazio publiko kolaboratibo batean sartzen ari dela, eta espazio honen xede bakarra dela ideia eta proposamenak trukitzea. Horregatik, onartzen du eta baimentzen du bere datuak publikoak izatea.

Nafarroako Gobernuak ekarpenen foro honetan utzitako ideia edo adierazpenak ez ditu ezinbestean bere gain hartuko ezta beretzat joko ere. Ikuspuntuetan desadostasuna eta desberdintasuna ongi etorriak izanen dira, betiere ez badute pertsona, enpresa, erakunde edo kolektiborik mehatxatzen, iraintzen edo erasotzen, horien gaineko informazio pribaturik ematen, publizitate komertzialik edo autopromoziorik sartzen, lizunkeriarik edo bestelako gustu txarreko edukirik barne hartzen.

Halaber, ez dago erakundearenak ez diren atari edo zerbitzarietan loturiko edukien gaineko inolako kontrolirik.

Nafarroako Gobernu Irekiaren webgunean parte hartzeak berarekin dakar espazioa erabiltzeko baldintzak onartzea.

Beraz, alegazioan aipaturiko entitateak ez dira parte hartze prozesutik kanpo geratzen.

23 Ekarpena: Helduen euskalduntzea indartzea, Nafarroa osoan euskara ikasteko doako aukera bermatuz.

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

2.5. Ideia hau 6.ardatzean jaso da.

2.5.1. Ideia hau 2.5.4 proiektuan biltzen da.

2.5.1.1. Ideia hau 2.5.4 proiektuan biltzen da.

2.5.1.2. Ideia hau 2.5.2 proiektuan eta 6.ardatzean jaso da.

2.5.2 Ideia hau 2.5.4 proiektuan biltzen da.

2.5.2.1. Ideia hau 2.5.4 proiektuan biltzen da.

2.5.2.2. Ideia hau 2.5.4 proiektuan biltzen da.

2.5.3. Ideia hau 2.5.1 proiektuan biltzen da.

2.5.3.1 Ideia hau 4.ardatzean biltzen da.

2.5.4. Ideia hau 1.ardatzean jaso da.

2.5.5. Ideia hau 2.5.6 proiektuan biltzen da. Formulazioa lausoa da, urteko ekintza-planean emanen baitira zehaztasunak.

2.5.5.1. Ideia hau 2.5.6 proiektuan biltzen da.

24 Ekarpena: La obligación provoca rechazo

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen hau ez da onartu ez duelako proposamen edo alegazio zehatz bat egiten.

25 Ekarpena: Alegaciones CONFEDERACIÓN EMPRESARIAL NAVARRA

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen honetan ez da alegazio edo proposamen zehatzik identifikatzen. Nolanahi ere, aipatutako alderdi batzuei erantzunez, honako hau jakinarazten da:

Sektoreko eragileei buruz egiten den proposamenaren inguruan, sektoreko eragile gisa identifikatzen ditugu arlo sozioekonomikoarekin lotura dutenak: lantegien elkarteak, komertzioak, zerbitzuak, sindikatuak, euskara alor ekonomikoan lantzen duten eragileak.

5.3.3 atalari dagokionez, proiektu honek abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearekin, euskarari buruzkoarekin, du lotura:

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

a) Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea.

Herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko beharrezkoa irizten diogu lantegiek euskarazko zerbitzu gehiago eskaintzeari, herritarrak euskaraz ere artatuak izateko aukera izan dezaten.

5.4.1 puntuari dagokionez, Euskararen II. Plan Estrategikoan biltzen da eta horretarako ondorengo proiektuak proposatzen dira:

5.4.2 *Euskarak Nafarroako enpresa jarduerari errentagarritasunaren zein gizarte erantzukizunaren ikuspegitik egiten dion ekarpenaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko, arlo sozioekonomikoko eragile publiko eta pribatuei zuzendu beharreko komunikazio plana diseinatu eta garatu, hizkera inklusiboa eta irudi ez-sexistak gehituz.*

5.4.3 *“Euskara Nafarroako arlo sozioekonomikoan” jardunaldiak antolatu gaiari ikusgarritasuna emateko, sektoreko eragileekin egoera aztertzeko, esperientzia interesgarriak agertzeko, Nafarroako eta kanpoko praktika onak ezagutzeko, enpresa berriak erakartzeko eta gizartea sentsibilizatzeko.*

7. eranskinari dagokionez, parte hartu duten eragileak soilik aipatzen dira; CEN aipatzen ez denez, ez duela parte hartu ulertzen da.

26 Ekarpena: NO HAY NINGUNA NECESIDAD DEL VASCUENCE.

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen hau ez da onartu ez duelako proposamen edo alegazio zehatzik egiten.

27 Ekarpena: IMPOSICIÓN DEL EUSKERA EDUCACIÓN Y ADOCTRINAMIENTO

Esparrua:

Hiztun berriak.

Onespena:

Dokumentu honetan proposatutako alegazioak ez dira onartu, baina aldaketa bat egon da 2.3.2 proiektuaren idazketan eta kokapenean, 4. ardatzera mugitu baita: *Euskararen eta haren sustatzearen aldeko adostasun soziala sendotzea eta hizkuntzak gizartean duen balioespena hobetzea.*

Beraz, honako proiektua proposatzen da: 4.1.4 *Eskola adineko haur nafar guztiek, euskararen gutxieneko ezagutza izan dezaten aukera aztertu eta azterketa horretan gizarte eragileekin aritu.*

28 Ekarpena: Sentido común con el Euskera

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen hau ez da onartu ez duelako proposamen edo alegazio zehatzik egiten.

29 Ekarpena: Euskararen II. Plan Estrategikoari ekarpenak

Esparrua:

Hiztun berriak.

Onespena:

2.5. Ideia hau 6.ardatzean jaso da.

2.5.1. Ideia hau 2.5.4 proiektuan biltzen da.

2.5.1.1. Ideia hau 2.5.4 proiektuan biltzen da.

2.5.1.2. Ideia hau 2.5.2 proiektuan eta 6.ardatzean jaso da.

2.5.2 Ideia hau 2.5.4 proiektuan biltzen da.

2.5.2.1. Ideia hau 2.5.4 proiektuan biltzen da.

2.5.2.2. Ideia hau 2.5.4 proiektuan biltzen da.

2.5.3. Ideia hau 2.5.1 proiektuan biltzen da.

2.5.3.1 Ideia hau 4.ardatzean biltzen da.

2.5.4. Ideia hau 1.ardatzean jaso da.

2.5.5. Ideia hau 2.5.6 proiektuan biltzen da. Formulazioa lausoa da, urteko ekintza-planean emanen baitira zehaztasunak.

2.5.5.1. Ideia hau 2.5.6 proiektuan biltzen da.

30 Ekarpena: Un paso más hacia la eliminación de nuestra "otra" lengua

Esparrua:

Hiztun berriak.

Onespena:

Ekarpen hau ez da onartu ez duelako proposamen edo alegazio zehatzik egiten.

31 Ekarpena: Alegaciones de la Asociación Hablamos Español

Esparrua:

Orokorra.

Onespena:

Ekarpen honetan ez da alegazio edo proposamen zehatzik identifikatzen. Nolanahi ere, aipatutako alderdi batzuei erantzunez, honako hau jakinarazten da:

Planeko zenbait proiektutan biltzen den moduan, Nafarroako Gobernuak herritarren arteko sektore desberdinei zuzendutako kanpainak egin behar ditu, euskararen aldeko adostasun soziala indartzeko eta honen aldeko aldaketa soziala bultzatzeko.

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa:

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

2. Hauek dira lege honen ezinbesteko helburuak:

a) Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea.

b) Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, euskararen erabilera sustatzeko neurriak adieraziz.

Honakoa dio Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, komunikabideei buruz:

III. TITULUA. KOMUNIKABIDE SOZIALAK

27. artikulua

1. Administrazio Publikoek komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskarak gero eta presentzia handiago izan dezan sustatuko dute.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu, komunikabideek euskara progresiboki eta ohiko moduan erabil dezaten.

2. Foru Komunitateak kudeatzen dituen telebista eta irrati emisora eta gainerako komunikabideetan, Nafarroako Gobernuak euskararen presentzia egokia begiratuko du.

Bestalde, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko beharrezkoa da Nafarroako Administrazio Publikoek beren zerbitzua euskaraz ere eskaintzea.

103/2017 FORU DEKRETUA, azaroaren 15ekoa, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan.

103/2017 FORU DEKRETUA:

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 2.1. artikuluan ezartzen da gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla eta, horren ondorioz, herritar guztiek dutela jakin eta erabiltzeko eskubidea. 2.2 artikuluan gaztelaniaren ofizialtasuna ezartzen du Nafarroa osoan; euskararena, aldiz, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 9. artikuluan ezarritakoa izanen da.

Euskarari buruzko Foru Lege horrek hiru hizkuntza eremu ezartzen ditu Nafarroan eta foru dekretu honek eremu horiek hartzen ditu bere baitan. Eremu euskalduna, zeinetan euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak baitira eta herritarrek eskubidea baitute administrazio publikoekiko harremanetan bi hizkuntzak erabiltzeko eta haiek aukeratutako hizkuntzan hartuak izateko. Eremu mistoa, zeinetan herritarrek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea baitute Nafarroako administrazio publikoen aurrean aritzerakoan. Eta eremu ez-euskalduna, zeinetan herritarrei onartzen baitzaie Nafarroako administrazio publikoen aurrean euskara erabiltzeko eskubidea. Hori horrela, Euskarari buruzko Foru Legeak onartzen du herritarrek eskubidea dutela hiru eremu horietan Nafarroako berezko hizkuntzak administrazio publikoekiko harremanetan erabiltzeko, foru lege horretan berean ezarritako terminoetan. Halaber, administrazio publiko horiek premiatzen ditu eremu bakoitzean neurri desberdinak hartzera, eskubide hori modu eta maila desberdinetan gauzatzeko. Hala ere, kontuan izan behar da, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea parte batean aldatu zuen otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legearen hitzaurrean onartzen dela ez dagoela inolako arrazoirik herritarren hizkuntza eskubide batzuk desberdinak izateko eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean, kontuan izan behar baita hizkuntza-ofizialtasunaren araubidea berbera dela aipatutako bi eremu horietan.

